

# EUSKARA II: AHOZKO KOMUNIKAZIOA

## Datu orokorrak



Seihilekoa: **S2**

Hizkuntza: **Euskara**

Formatua: **On line Eskolak**

## Deskribapena



Ikastaroaren helburu nagusia jendurrean berariazko ahozko azalpenak egiteko gaitasuna hobetzea da. Horretarako, hauek izango dira landuko diren helburu orokorrak:

- Ahozko aurkezpen eraginkorrak egiteko gaitasuna hobetzea.
- Ahozko komunikazio-egoera formaletan (aurkezpenak, bilerak, kongresuak, azokak...) kalitate eta jarioitasun handiagoz jarduteko trebatzea.
- Euskara batua praktikatzea, eta testuinguru akademiko eta jazoko hizkeraren ezaugarriak ezagutu eta lantzea (erregistroa; ahoskera zaindua... )

## Metodologia



Irakaslearen eskoletako azalpenez gain, banakako ikasketa landuko dugu gaiari buruzko artikulua, liburu eta katalogoen bidez. Era berean, gai bakoitzean ikasleak azalpen-bideo baten gidoia sortu, landu, entseatu eta grabatuko du. Halaber, beste ikasleen bideoak aztertuko dira, kontrol zerrenda bat erabiliz, eta feedbacka eman beharko die bi ikaskideei. Simulazio praktiken bidez eszenaratzea landuko dugu, ez-hitzezko baliabideak erabili eta horien azterketa eginez.

## Edukiak



- **1 Gaia: Bileretako aurkezpenen ezaugarriak**
  - Jendurrean hitz egitearen artea: zenbait gako
  - Plangintza eta prestakuntza egokitzea: gaia, helburua eta entzuleak
  - Jendurreko aurkezpenak prestatzeko urratsak
  - Ahozko jardunaren ezaugarriak eta hizkera.
- **2 GAIA Laneko aurkezpenaren ezaugarriak.**
  - Euskarri lagungarriak prestatzeko diseinugomendioak.
  - Arreta erakartzeko eta interesari eusteko baliabideak
  - Hitzaldia egoki formulatu.
- **3 GAIA: Azoka eta kongresuetako aurkezpenen ezaugarriak.**
  - Eszenaratzea
  - Ez hitzezko komunikazioa
  - Urduritasuna kontrolatzea
  - Erregistroa eta baliabide erretorikoak